


Nola kendu likido baten partikula solidoak dekantazioaren ondotik ?

1. Nahastearen iragazketa

. Dekantazioaren ondotik lortu dugun likidoa iragaz dezagun : hortarako, isur dezagun erlenmeyer baten gaineko inbutura (inbutua iragazperez estalia da).




1. irudia




2. Filtratuaren behaketa

. Ongi beha dezagun erlenmeyerrean isurtzen den likidoa.




2. irudia




3. Emaitzaren behaketa

. Beha dezagun iragazia izan den likidoa.
. Iragazpapera zabal eta beha dezagun.



3. irudia



Beha eta ondoriozta

1. Zein da iragazpaperaren funtzioa iragazketan (1. irudia)?
2. Lortzen den filtratua nahaste homogeneo ala heterogeneo da (2. irudia)?
3. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez: «Nola ken daitezke likido baten partikula solidoak dekantazioaren ondotik?».



Kasu !

Likidoa irabiagailu baten bidez isuraraz, bestela iragazpapera urra daiteke.

Nola lortu ur garbia iragazketaren ondotik ?


1. Esperimentuaren prestaketa

- . Destilazioaren muntaketa egin dezagun. Iragazketatik lortu den likidoa baloiean isur dezagun.
- . Ur hotzaren txorrota irek dezagun, ura hoztailean ibil dadin, eta baloia berotzen ezar dezagun.



2. Likidoaren destilazioa

- . Becherrean isuri den likidoa beha dezagun
- . Baloiean gelditu den solidoa beha dezagun.



Beha eta ondoriozta

1. Zein egoera-aldaketa jasaiten du likidoan dagoen urak berotzen delarik ?
2. Zein egoera-aldaketa jasaiten du urak hoztailearekin kontaktuan ?
3. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez : «Nola lortu ur garbia iragazketaren ondotik ?»

Kasu !

Ez hunki baloia, ez eta ere berogailua destilazio denboran.

1- Testua idatz eta osa


- a- Nahaste baten zenbait osagai begiz bereiz daitezkeelarik, nahastea dela erraten da. Alderantzizko kasuetan, nahastea dela erraten da.
- b- Ur lohitsu nahaste da. Dekantazioaren bidez daitezke nahaste baten osagaiak.
- c- Iragazketaren ondotik lortzen den likidoa deitzen da. Nahaste da.
- d- Destilazioan, likidoa bilakatzen da, eta azken hau, hoztuz, da. Lortzen den likidoa deitzen da.

2- Homogeneo eta heterogeneo

- a- Nola bereizten dira begiz nahaste homogeneo bat eta nahaste heterogeneo bat ?
- b- Nahaste homogeneo baten adibide bat eta nahaste heterogeneo baten adibide bat emazkizu.

3- Eskema osatzen

Behereko eskema osa, eskas diren izenak idatziz.



4- Egia ala gezurra ?

Erantzun zuzenak ingura, eta okerrak zuzendu.

- a- Filtratua nahaste homogeneoa da.
- b- Iragazketaren bidez ur garbia lor daiteke.
- c- Filtratua likido garbia da.

5- Esperimentu bat asmatu


Itasoko ura ontzi batean biltzen dugu ondartzan.

Proposa itzazu esperimentu batzuk, itsasoko uretik abiatuz ur abantzu garbia lortzeko gisan.

6- Ibilmoldea azaldu

Behereko sistema eguzkipean utziz, itsasoko uretik abiatuz ur abantzu garbia lor daiteke.


Sistema horren ibilmoldea azal ezazu.



7- Usain onen alanbikoa

Irudian alanbikoa bat ageri da, usain onen destilazioan erabiltzen diren gisakoa.



- a- Eskema egizu, eta erakutsi non diren : berogailua, hoztailea, destilatua.
- b- Hoztailean marraz itzazu uraren sartzea eta ateratzea.



Hitzen bidez ikasten dut

- . Nahaste heterogeneo batean, osagai desberdinak begiz bereizten dira.
- . Nahaste homogeen batean, ezin dira osagai desberdinak begiz bereizi.
- . Nahaste heterogeneo baten osagaiak dekantazioa eta iragazketaren bidez bereiz daitezke. Iragazketaren bidez nahaste homogeen eta argia lortzen da.
- . Nahaste homogeen baten osagaiak destilazioaren bidez bereiz daitezke. Ur destilatua abantzu garbia da.

Irudien bidez ikasten dut



Gaitasunak

- . Filtrazio bat eta dekantazio bat deskribatzeko eta eskematizatzeko gai izatea.
- . Filtrazio bat eta dekantazio bat egiten jakitea.
- . Dekantazio bat deskribatzeko eta eskematizatzeko gai izatea.
- . Destilazio bat eta dekantazio bat egiten jakitea.